



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-05-05**

VIII. URTEA 1992. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Gazteenek uraren egoeraren berri eman diete udal ordezkariari

AGENDA 21 Ikaztegieta eta Zizurkilgo ikasleak euren herrietako udaletxeetan izan dira proposamenak egiten

KONPROMISOA Udaleko arduradunek ikasleek esandakoei idatziz erantzungo dietela agindu diete 3



Eskoletako haurrak udal ordezkariarekin elkartu ziren atzo Zizurkilgen, uraren gaia aztertzeko. A. IMAZ



Saridunak eta epaimahaikideak atzo udaletxeko pleno aretoan. E. MAIZ

RITXAR BACETE GIZARTE LAGUNTZAILEA

«Gizonen txip aldaketa lortu nahi dugu; egiten duguna ez da naturala, ikasi duguna baizik»

TOLOSA Berdintasunaren Aldeko I. Astearen baitan etxeko lanen eta zainketaren inguruko hitzaldia eskainiko du gaur 20:00etan 2

Andoni Mosqueira gazteak diseinatu du Katea Etxearen logotipo berria

VILLABONA Uste baino jende gutxiagok hartu du parte lehiaketan; guztira 6 lan aurkeztu dituzte 4

-50% -40% -35% -20%

LIKIDAZIOA

ERAKUSKETAN ALDAKETA GAITIK

www.muebles-basoko.com mueblesbasoko@yahoo.es

BASOKO
ALTZARIAK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2
20150 billabona gipuzkoa
tfn.: 943 692 965

E Elkarrizketa**RITXAR BACETE** > Gizarte laguntzailea

«Berdintasunaren alde ari bagara pribilegioak alde batera utzi behar ditugu»

Gizartea

Berdintasunaren Aldeko I. Astearen barruan etxeko lanen eta zainketari buruz ariko dira gaur, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxean, Gizonduz-eko kidearekin.

INIGO TERRADILLOS

Berdinbide Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Kontrako Gizonen elkarteak Berdintasunaren Aldeko I. Astea antolatu du. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hainbat alorretatik jorratzen ari dira, eta gaurkoan etxeko lanei eta zaintzei erreparatuko diete. Horretarako, Ritxar Bacete gizarte teknikaria, antropologoa eta Gizonduz-eko kidea izango da Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

Kalean berdintasuna aldarrikatzen dugu, baina etxean...

Gaur egun teorikoki mundu guztiak esaten dugu berdintasunaren alde gaudela, eta ez ditugu diskriminazio egoerak onartzen. Baina, aztertzen badugu, etxeko lanetan zenbat denbora egiten duten gizonen eta zenbat emakumeek ikusten da gizonak askoz ere denbora gutxiago egiten dutela. Hor dago gaur egun gure gizartearen daukagun errotarik garrantzitsuen, berdintasuna lortzea gure bizitza pribatuan.

Dena den, belaunaldiak aurrera egin ahal, aldatuz al doa?

2003. urtean, Eustatek egin zuen ikerketaren arabera, gizonen egunerorik ordu eta 32 minutu erabiltzen zituzten etxeko lanak egiteko. 2008. urtean egin zuen ikerketaren arabera, 4 minutu gehiago eskaintzen dizkiote gizonen etxe-



HITZA

ko lanei. Berdintasuna lortzeko 300 urte igaro beharko lirarteke. Geroz eta denbora gehiago erabiltzen dugula bai, baina normalean lan erosoenak aukeratzen ditugu.

Zer da Gizonduz?

Emakumenderen baitako programa da. Lehen aldian da gurean emakumearen institutu batek gizonen

«Emakumearen institutu batek gizonekin lan egiteko estrategia jarri du martxan lehen aldiz»

kin lan egiteko estrategia bat martxan jartzen duena, gizona berdintasunaren aldeko subjeto politiko izanik. Europan horrelako beste bi kasu baino ez daude.

Berdintasunaren alde egiteko zer lantzen duzue?

Berdintasunaren aldeko borrokan geroz eta gizon gehiago inplika-

tzea da gure helburua. Horretarako, sentsibilizazioa eta formazioa bultzatzen ditugu. Giza erakundeekin, udaletxeekin, poliziaekin, medikuekin, gizarte langileekin... egiten dugu lan. Berdintasun gaian orain arte gizonen ez dute parte hartu, baina hau aldatuz doala ikusten ari gara.

Zer gustatuko litzaizuke gaurko hitzaldiarekin lortzea?

Gizonen txiparen aldatzea. Konturatzeko gure gizona ez dela naturala, ikasi duguna baizik. Argi izan behar dugu berdintasunaren alde borrokatuta ez ditugula pribilegio gehiago irabaziko. Aitzitik, pribilegio horiek alde batera utzi behar ditugu. Beste gizon eredu bat sortu behar da, eta hori lortzea zaila da, baina sentsibilizatzea edo txipa aldatzea gizonen batengan behintzat lortzen badugu, jardunaldi hauek merezi izan dutela esango dugu.

L Laburrak**Tomas Madinabeitiarekin Kongori buruz, Olarrainen**

GIZARTEA ● Olarrain auzoko Lagun Artean elkarteak Kongoko oihanean, ur bila diorama izango da gaur ikusgai, 20:00etatik aurrera. Tomas Madinabeitia apaizak aurkeztuko du emanaldia. Eskoriatzarra Kongon izana da hezkuntza proiektu batean, eta bertako bizipenak kontatuko ditu. Tolosan ere izan zen apaiz 20 urtez.



Tomas Madinabeitia Kongon. HITZA

San Joan jaietako estropadetaren izen-ematea

KIROLA ● San Joan jaien barruan izango diren estropadetako izen-ematea aste honetan egin behar da. Hain zuzen ere, bihar eta etzi egin ahal da, TAKEko bulegoetan, 18:00etatik 20:00etara.

Dantza eta yoga ikastaroa larunbat honetan

GIZARTEA ● Tolosako Barrearen Eskolak dantza eta yoga ikastaroa antolatu du larunbat honetarako, hilaren 8rako. 10:00etatik 14:00etara izango da, eta izena emateko 943 11 86 69 edota 688 80 08 00 zenbakira hots egin behar da.

GPS ikastaroa antolatu du Oargik datorren asterako

MENDIA ● Oargik GPS ikastaroa antolatu du datorren asterako, hilaren 10, 12, 14 eta 15erako. 19:00etatik 21:00etara eta larunbatean 09:30etik 13:00etara izango da, elkartearen bertan, eta Carlos Garcia emango du. Izena emateko info@oargi.org era idatzi edo 688 69 86 42 zenbakira hots egin behar da. Izena ematean 20 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutzako 3035 0028 1102 8114 1038 kontuan. 30 euro inguru kostako da parte-hartzaileen kopuruaren arabera.

Bordondantzari bezala irteteko entseguak

KULTURA ● San Joan jaietan Bordondantzari bezala irteteko entseguak bihar hasiko dira. Entseguak ostegunero izango dira Usabal kiroldegian 20:30etik aurrera. Helduen ikastaroak, berriz, maiatza eta ekaineko astearteetan izango dira, 20:30etik 21:30era.

Tolosako jubilatuen Gipuzkoako Txapelketan

GIZARTEA ● Tolosako jubilatuen Gipuzkoako Jubilatuen Txapelketako finalerdietarako sailkatu dira. Lehendabizi herrian eta ondoren Urnietan eta Ordizian jokatu eta gero, Veiga eta Sandoval dominon, Josetxo Iraola billarrean eta Juan Bautista Aranzabe xakean ariko dira datorren maiatzaren 20an Legazpin. Bertan fin arituz gero, maiatzaren 27an finala jokatu lukete, Altzan.

Bisiguaren Festan izena emateko aukera

GASTRONOMIA ● Maiatzaren 29an eta 30ean izango da aurten Bisiguaren Festa. Txinparta elkarteak antolatuta, Euskal Herriko hiru parrrillero «onenetakoek» egindako bisigua dastatzeko aukera izango da. Tolosaldea Tour bulegoaren bitartez eman ahal da izena, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edo bestela [tour@tolosaldea.net](http://tolosaldea.net) helbidera idatziz.

Komunikazioari buruzko hitzaldia, Amarotzen

GIZARTEA ● Datorren astelehenean, hilaren 10ean, *Komunikazioa eta adiskidetasuna, bizitza osasuntsuaren giltzak* hitzaldia izango da Amarozko Beti Gazteak elkartearen. Miren Karnele Gurrutxagak emango du, eta 18:30ean hasiko da.

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaratzea, bihar

POLITIKA ● Hileko lehen ostegunero bezala, bihar elkarretaratzea deitu du Lizardi elkarteak Pello Odriozola bazkidea aske utzi dezatela exijitzeko. 19:30ean izango da Plaza Zaharrean.

LANA

■ **Euskalduna.** Mutil euskalduna behar da lanerako, 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik 15:00etara, 649 51 09 41 zenbakira.

SALGAI

■ **Furgoneta.** Volkswagen Multivan furgoneta salgai. Westfalia sa-baiarekin. Berogailu estatikoa. Bizikletak eramatekoarekin. Prezio interesgarria. 665 73 42 27.

■ **Lokala.** Iruran lokala salgai. Las-kibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m². 78.000 euro. 645 72 19 47.


**KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ)
Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenentarako lan poltsa osatzeko.****Eskatzen**

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidalí curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kultur eskaintza zabala prestatu dute hilabete honetarako

ERREDAKZIOA

Hil hau ere kultur ekitaldi ugariakin iritsi da Tolosara.

Antzerki emanaldiak, kontzertuak, erakusketak eta hitzaldiak izango dira, besteren artean, maiatzean zehar.

Musikari dagokionez, Alos Quartet taldearen eta Nacho Vegasen kontzertuak nabarmendu behar dira. Alos Quartetek bere azken lana, *10 tanta* izenekoa, aur-

ratuko du, nahiz eta ez den Tolosan jotzen duen lehen aldia. Nacho Vegasek, aldiz, iaz kaleratutako *El genero bobo* lanaren abestiak joko ditu Leidorren. Xixon (Asturias) herrian jaiotako kantautoreak rocka eta folka uztartzen ditu.

Zinema, antzerkia eta azokak
Bestetik, zinema eskaintza zabala izango da hil honetan zehar, eta antzezlan bikainak ikusteko auke-

ra ere izango da, *Euskarazetamol* esate baterako. Ez Dok Hiru Bikoteatroaren *Dibertimenduak* izeneko trilogiaren azken antzezlan da hau. «Antzerkiak ideia pitorik ez dugun arren, gutxienez hiru-rarte kontatzen badakigula», erakutsiko dute lanean.

Era berean, maiatzean zehar Bisiguaren Festa izango da Zerkausian eta baita Tolosa Berdez lore eta landare azoka berezia ere.

» MAIATZA 2010 TOLOSAN

Erakusketak

- **Aranburu Jauregia.** Ekainaren 12ra bitarte Nisa Goibururen eta Adolfo Tannenbaum-en erakusketak.
- **Topic-en.** Hilaren 30a bitarte *Txinako txobxongoletako pertsonaia tradizionalak*.
- **GKo Gallery.** Hilaren 7tik ekainaren 13ra *Carnet e voyage. Txileko itzulia*.

Kultur Etxea

- **Hilaren 3tik 9ra.** *Berdintasunaren aldeko I. Astea*.
- **Hilaren 11n.** Bayoneta aldizkariaren zerbaki berriaren aurkezpena. Jurgi Kintanaren hitzaldia: *Euskara ezkutatu: Tolosa 1810ean*.
- **Hilaren 13tik 21era.** Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatutako erakusketak eta hitzaldi sorta.
- **Hilaren 17an.** Odol emaleen hileroko odol ateratzekak.
- **Hilaren 21ean.** Yoga elkarteak antolatutako ikastaroa Javier Lorerentzen eskutik, 20:00etan.

Ikuskizunak eta musika

- **Hilaren 6, 18 eta 20ean.** Leidorren, 17:30ean, Bertsozale elkartearen ikasleen emanaldiak. Pailazoka.

- **Hilaren 7an.** Nacho Vegasen kontzertua Leidorren, 21:00etan.
- **Hilaren 15ean.** *Toutouie, una aventura submarina* argi beltzeko sorkuntza Topic-en, 18:00etan.
- **Hilaren 18an.** *Basque irish connection* kontzertua Topic-en, 20:00etan.
- **Hilaren 21ean.** *Euskarazetamol* antzerkia Topic-en, 20:30ean.
- **Hilaren 23an.** *Piedra a piedra* txobxongo emanaldia Topic-en, 12:30ean.
- **Hilaren 28an.** Alos Quartet-en kontzertua Topic-en, 20:30ean.
- **Hilaren 30ean.** Udaberri eta Musika Eskolako ikasleen banda Leidorren, 12:00etan.

Zinema

- **Hilaren 6ean.** Zine foruma: La costilla de Adam. Jatorrizko bertsoia.
- **Hilaren 8an.** *Flor del desierto* eta *El Escritor*.
- **Hilaren 9an.** *Los Niños de Timpelbach*, Kimuak 2009 eta *El Escritor*.
- **Hilaren 10ean.** *Flor del desierto*.

Besterik

- **Hilaren 6an.** Mirian Mendoza haur liburutegiko lpuin Txokoan, 18:00etan.

- **Hilaren 7an.** Mikel Telleriak Des proiektuaren barruan antolatutako mahai ingurua: Lourdes Fernandez, ARCoko zuzendaria; Santiago Eraso, Kultur kudeatzailea; Izaskun Alvarez, artista eta arte komisaria eta Xabier Gantzarain, idazlea eta arte kritikaria, besteak beste Abastos plazan, 19:00etan.

- **Hilaren 7tik 9ra.** Kutxa Kultur Zirkuitua.
- **Hilaren 14ean.** Natural Project-en kontzertua Frontoi kafetegian, 23:00etan.
- **Hilaren 15ean.** Txapin Festa. Gazte talde, lokal, koadrila eta aisialdi taldeen arteko festa.
- **Hilaren 15ean.** Udaberri Dantza Taldea eta Alacanteko Grup de Dances d'Ibi.
- **Hilaren 24tik 30era.** 16. Musika, Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak antolatuta.
- **Hilaren 29tik 31ra.** Bisiguaren Festa Zerkausian, Txinparta elkarteak antolatuta.
- **Hilaren 29tik ekainaren 6ra.** Tolosa Berdez, lore eta landare feria.
- **Hilaren azken larunbatean.** Tolosa Kantari. Agirre doktoarearen plazan, 12:00etan.



Ikaztegiatiko udal ordezkariak eskolako haurrekin bilduta. HITZA

Uraren inguruko ikerketaren ondorioak eta konpromisoak

Agenda 21 » Zizurkilgo eta Ikaztegiatiko ikasleak uadaletxeetan izan dira, udal ordezkariari euren lanaren emaitzak azaltzen.

ERREDAKZIOA

Zizurkilen eta Ikaztegiatiko eskolako haurrak uadaletxeetan izan dira. Ikastetxeetan uraren gaia aztertzen ondoren, emaitzak udal ordezkariari aurkeztu dizkiete. Hauek idatziz erantzuteko konpromisoa hartu dute.

Ondorioak eta proposamenak
Eskolako Agenda 21 programaren baitan, ikasleak herriko uraren egoera aztertzen jardun dira. Ikerketak ondorioak eta proposamenak sortu ditu.

Ikaztegiatiko, besteak beste, ondorengo proposamenak luzatu zituzten herenegun, uadaletxean: «herriko estolderia era egokian mantendu, tarteka beharrezko diren errebisioak eginez; Iturriren kokapen egokia ongi aztertu; uda-

letxeak sentsibilizazio plana egitea, herritarrei hainbat gomendio helaraziz: igerileku pribatua duten etxeetan ura neurritz erabil-tzea, olio edo hainbat produktu kutsakor arraskatik ez botatzea, kalea garbi mantentzea...».

Zizurkilen ere udal ordezkariak adi entzun zituzten ikasleen gomendioak: «Zizurkilgoan, paseolako iturria aspalditik izorratuta dago; egunerokotasunean, ur asko erabili eta zikintzen dugu; erreka inguruko landaredia mantentzen ez bada animaliak desagertuko dira; herriko zenbait iturri ez dau-de egoera onean; Eskolako teilatu-kanaloia zulatuta dago eta izugarrizko ur pila erortzen da; Eskolako komunetan ez dauzkagu botoi bikoitzak...».

Azkenik, adibidea emanaz konpromisoak ere hartu zituzten ikasleek: «zisterna bonbatik tira eta berehala jaitsi, behar denean baka-rrik erabili eta bomba trabatuta ez dela ziurtatuko dugu; jolasterakoan nor bere burua ahal den gutxien zikindu; ontzi garbigailua eta labad-ora beteta daudenean jarri...».

63 urteko gizon bat zendu da ibaira erorita

ERREDAKZIOA

63 urteko gizon bat hil zen atzo goizean Tolosan, Oria ibaira erori eta Ertzaintza eta suhiltzaileek handik atera ondoren. Errekatik atera eta Asuncion klinikara eramane zuten, eta han zendu zen.

11:15 aldera jausi zen ibaira gizona, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak esan zuenez. Korronteak Irura aldera zeraman.

Herritar batek ikusi eta Larrialdi Zerbitzuei abisua eman zien. Ertzain eta suhiltzaile batzuk Oriara sartu ziren, eta eskailera eta arnesa erabilita lortu zuten gizonazko ateratzea. Larri araman zuten erietxera.

Kasua ikertzen ari da Ertzaintza. Herritarrei laguntza eskatu die, gizonazko non erori zen jakiteko.



Joxantonio Ormazabalen hileta atzo

TOLOSA » Joxantonio Ormazabal zegamarraren hileta atzo egin zuten Tolosako Santa Maria parrokiaren. Euskal kulturaren inguruan lan egiten duen jende ugari elkartu zen bertan. Joxantonio Ormazabal idazlea igan-

dean aurkitu zuten hilda Zegama inguruko mendialdean. Azken urteetan Tolosan bizi zen. Bere sorkuntza gehienbat haur eta gazte literaturara bideratu zuen. A. MAIZ

Porrotxen bisita jaso dute Imaz Bertsolaria eskolako ikasleek

Altzo » Sudurgorriak saioa eskaini zien eskolan eta gero Eskola Txikien Festarako abestiaren entsegua egin zuten.

IMANOL GARCIA

Altzoko Imaz Bertsolaria eskolan gero eta gertuago dute Eskola Txikien Festa eta honen harira zenbait entsegu ere egin dituzte Porrotx pailazoaren bisita baliatuz. Izan ere, Porrotx eta bere lagunekin Eskola Txikien Kanta abestu eta dantzatzeko dute Festaren egunean.

Entseguen aurretik Porrotxek saioa egin zuen ikasle eta irakasle aurrean. Hainbat koloretako zapiak ateratu zituen eta kolore bakoitzaren esanahia esplikatuz.

Azkenean, zapi batean beste guztiak bilduta poltsa batetik ortzadarrara ateratu zuen, eskolakoek bidalitako «hauts magikoak» erabiliz.

Giro ederra jarri zuen Porrotxek eta ikasleek zein irakasleek gustura pasatu zuten bere ateraldiak. Saioa bukatuta, entsegurako tartea iritsi zen. Ekainaren 13an izango den Eskola Txikien Festa, ikasleek, gurasoek eta irakasleek eszenatokian Eskola Txikien abestia dantzatu eta kantatzeko dute, Porrotx eta bere taldekideek gidatuta. Horretaz gain, Pirritx eta Porrotxen *Maita zaitut* abestia ere dantzatzeko dute eta kanta horren dantza ere errepasatu zuten. Haurrek zein irakasleek ederki jarraitu zioten Porrotxen mugimenduei. «Guk taula gainean ondo pasatzen badugu, jendeak ere ondo pasatuko du», esan zien sudurgorriak.



Goiko argazkian, eskolan egindako entsegua une bat. Behekoan, Porrotxen emanaldiaren aurretik. I. GARCIA

Eskualdeko lau herriak atzetik kanporaketan

Pilota » Albiztur, Alegiak, Amezketak eta Tolosak 1-2 galdu zituzten joaneko partidak; etxetik kanpo erabakiko dira lehiak.

I. GARCIA

Eskualdeko lau herriek aldapagora jarri zaie Herriarteko Txapelketa. Jakitun ziren talde bakoitzeko arduradunak zaila izango zutela bakoitzak bere kanporaketa. Albiztur, Alegia, Amezketak eta Tolosak etxean jokatu zuten asteburuan eta partidei dagokionez, laurak 1-2 galtzen ari dira oraingoz. Agian Alegiak du aukera gehien kanporaketa irabazteko.

Albizturrek Donostia hartu zuen etxean. Kadeteetan 22-15 irabazi zuten, jubeniletan 1-22 galdu eta nagusietan 9-22 galdu. Lehenengo bi mailatan aurretik uste bezala joan ziren partidak. Kadeteetan irabaztea lortu zuten eta jubeniletan bazekiten tanto askorengatik galduko zutela. Nagusietan, «Telletxeak ez zuten bere eguna izan», azaltzen du Gorka Arandia arduradunak. «Baz donostiarrak min handia egin zuen saketik». Ikusi beharko da Atano frontoian hobeto moldatzen den Telletxea eta aukerak sortzen diren kanporaketan. Itzulerakoa larunbatean izango da, 16:30ean. Udalak autobusa antolatu du eta

izena emateko azken eguna gaur da. Horretarako udaletxera joan behar da eta 5 euro ordaindu behar dira.

Pasatzeko esperantza

Galtzen joan arren, Alegiakoek esperantzak badituzte azkoitiarren aurka. Kadeteetan 18-22 galdu zuten, jubeniletan 22-6 irabazi eta nagusietan 8-22 galdu.

Txikien mailan irabazteko aukera izan zuten, baina azkenean azkoitiarren eraman zuten garai-pena. Jose Luis Zabala taldeko arduradunak gogoratzen duenez, «15-11 irabazten joan ginen, partidari beti aurretik, 18na berdindu arte. Orduan lau tanto segidan egin zituzten eta beraiek irabazi zuten». Jubeniletan aise irabazi zuten eta nagusietan azkoitiarrek beraien indarra baliatu zuten. «Nahiko jotzaileak dira bi pilotariak eta dena atzera botatzen zuten», dio Zabalak.

Kanporaketa Azkoitia erabakiko da, ostiralean, 22:00etan. Aurreko kanporaketan gertatu zen bezala, alegiarrek espero dute kanporaketa irabazteko. «Kadeteetan irabazteko gai direla erakutsi dute eta jubeniletan ere aukera dituzte besteak tanto gutxitan uzteko. Nagusietan ere ahal duten tanto gehiena egitera ateratu behar dira», azaldu du Zabalak.

Amezketari dagokionez, kadeteetan 8-22 galdu zuten, jubenile-

tan 16-22 galdu zuten eta nagusietan 22-18 irabazi Hernaniren aurka. Xalton Zabala taldeko arduradunak dioenez, «kadeteetan erakutsi nahi izan zuten, baina ezinean aritu ziren. Uste baino okerrago ibili ziren eta hernaniarrek uste baino indartsuago». Jubeniletan Hernanitik bi atzelari aritu ziren eta «nahiko ondo jolas zuten», dio Zabalak. «Atzera jotzen zuten».

Nagusietan izan zen ezustekoa. Amezketak bi beteranok, 78 urte dituzte bien artean, sekulako partida egin zuten. «Biak oso ondo ibili ziren», dio Zabalak, «eta giroa jarri zuten frontoian. Haritzek tanto onak egin zituen eta Artolak ondo eutsi zuen atzean». Amezketako frontoia bete egin zen eta eskertu zuten pilotarien ahalegina.

Zabalak zaila ikusten du kanporaketa gainditzea. «Bi partida irabazi behar ditugu eta gero tantoei buelta eman behar zaio», dio. Halere, amezketarrek Gallurralde izango dute jubeniletan berriro, aurreko asteburuan ezin izan baitzuten jokatu hanka azpietan babak zituelako.

Tolosarrek azpeitiarren aurka 22-15 irabazi zuten kadeteetan, 6-22 galdu jubeniletan eta 10-22 galdu nagusietan. Mikel Beloso taldeko arduradunak azaldu duenez, «nahiko zaila genuela bagenekien. Pilotariak, nahiz jakin zaila zela, borrokatu zuten».

Kadeteetan tolosarrek aprobetxatu zuten nagusitasuna, baina beste bi partidetan ahal zutena egin zuten. Azpeitian larunbatean jokatzeko dute itzulerakoa, 22:00etan. «Herriartekoan tradi-

zio handia du Azpeitiak eta jende asko izango dute animatzen», dio Bellosok. «Gu gustura gaude lehenengo kanporaketa pasatu dugulako eta oraingoan ere ahaleginduko gara gure onena egiten».

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMATERAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean. Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI / Baskinbox

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria

Laburrak

Festa Batzordearen bilera izango da hilaren 11n

IBARRA ● Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordeak ekin dio San Bartolome jaien antolaketari. Hori dela eta bilerara deitu du eta herri-tar guztiak gonbidatzen ditu bilkuran parte hartzera. Batzarra datorren asteartean, hilaren 11n, izango da, Udal Pleno Aretoan.

Aralarko ikasleen kontzertua etzi, Betelun

LEITZA ● Aralar Udal Musika Eskolako ikasleek Basaburuan kontzertua eskaini zuten duela egun batzuk eta honen ondotik, hil honetatik ekainera bitartean, beste hainbat emanaldi eskainiko dituzte. Hurrengoa Araritz-Beteluko Ikasleena izango da. Saioa etzi 18:00etan izango da, Beteluko Elizan. Kontzertu tematikoa izango da, Tebista edo Zine Film Ezagunen Soinu Bandak delarik aukerutako gaia. Bestalde, datorren astelehenean hasiko da matrikulazio kanpaina eta hilaren 30ean bukatuko da.

Izaskungo erromeriara txangoa, Bizi Nahirekin

IBARRA ● Bizi Nahi jubilatutako erromeria antolatu du hilaren 12an Izaskunera. Bertan parte hartzeko, izen-ematea elkartean egin daiteke. Oinezkoak 09:30ean abiatuko dira elkartetik. Autobusa 12:00etan aterako da. 11:30ean toka txapelketa izango da gizontzatzat, 12:15ean berriz, emakumeen toka txapelketa. 13:00etan meza ospatuko da hildako bazkideen alde. 14:00etan bazkaria eta dantzaldia Los Rubi taldearekin.

Baserrietan osteagatik gizon bat atxilotu dute

ADUNA ● Gipuzkoako zenbait baserrietan, tartean Adunako batean, lapurtzeagatik gizon bat atxilotu zuten Lasarten atzo Ertzaintzak. Otsailetik hona, zazpi lapurreta egitea leporatzen dizkiote, Andoain, Hernani, Astigarraga, Aduna eta Hondarribian. Ustez, dirua, baliozko objektuak eta bitxiak lapurtu ditu. Epailearen esku geratu ostean, atxilotutako pertsona espetxeratuko agindu zuten.

Hemen da urteko lehen Garagardo Festa, eskaintza berrituarekin

Ibarra » Hogeigaragardo ezberdin eta bost kalimotxo berezi dastatzeko aukera izango da bihartik aurrera.

ERREDAKZIOA

Herriko festez gain, Garagardo Azokak ere hasi dira eskualdean. Urteko lehendabizikoa asteburu honetan izango da Ibarra. Bihar 18:00etan irekiko ditu ateak eta igande gauera arte egongo da zabalik. Egutero garai berean zabalduko da, baina egunaren arabera, ordu ezberdinean itxi. Esaterako, bihar, 12:30ak arte egongo da, eta ostiral nahiz larunbatean, 3:00ak arte.

Bi karpa erraldoi jarriko dituzte plaza, jendearen jan eta edan goseak asetzeko. Batean jangelako egongo da, eta bertan, 500 lagunentzat izango da tokia. Bestean berriz, edaria zerbitzatuko da.

Euskal Herrian ekoizitako garagardoak nahiz inportaziozkoak dastatzeko aukera izango da. Dena den, eskaintzan aldatetako egin dituzte «aukeraketa bereziago bat» egin nahi izan baitute antolatzaileek. Iaz, urtean zehar, tabernetan kontsumitu zitezkeen garagardoak eskaini ziren, baina aurten, bereziago batzuk eskaintzea erabaki dute. Menu berri horren baitan daude: Nafarroako bi Naparbier, horia eta iluna; Chekiako Cilsner Uргуell (horia); Herbehereetako Trappe doble (iluna); Grimbergen doble (iluna); eta Lefst (iluna).

Guztira 250 kupel izango dira, hau da, 800 litro garagardo inguru. 5 kalimotxo mota ezberdin eskaintzeko berezitasuna ere mantenduko dute. Baina horietako bat berria izango da, Arabako ardoarekin, Pepsiarekin eta masusta likorearekin egina, hain zuzen ere. Jatekoari dagokionez, menua ez da aldatuko. Hala, hasteko, hiru saltxitxa mota, Ibarra piperrak, txorizo egosia eta ukondoa izango dira. Postreei dagokionean berriz, euskal pastelaren eta gazta eta irasagarren artean aukeratu ahal izango dute bezeroek.



Iaz, Bartolak eta herriko boluntarioek eman zioten hasiera Ibarra Garagardo Festari. ASIERIMAZ

Estreinakoz, Mus Txapelketa azkarra jokatu da festaren baitan

Aisia » Larunbat arratsaldean izango da eta sari potoloak egongo dira irabazleentzat; 16:30ean hasiko da lehia.

ERREDAKZIOA

Garagardo Festa berrikuntzekin dator aurten. Aldaketak izan dira garagardo menuan, eta baita, festaren baitan antolatzen diren ekintzetan ere. Oraingoan, inguruko mus jokalariek bertaratzeko lortu nahi dute antolatzaileek.

«Eskualdean, kartajoko honekiko dagoen afizioa ikusita» Lehendabiziko Mus Txapelketa Azkarra prestatzea erabaki dute. Garagardo azokarekin batera, ekimen honen laguntzaile da gainera TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria.

Hilaren 8an, hau da, larunbate-

an, jokatu da norgehiagoka. 16:30ean hasiko dira partidak, eta ordu bat lehenago eman ahal izango dute izena parte-hartzaileek. Horretarako, karpura hurbiltzea besterik ez dute, izan ere, txapelketa ere horbertan jokatu da. Bikotea bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu lehiatzeko.

Mus modalitateari dagokionez, lau erregetara jokatu da. Sei hamarrek egin beharko dira ustel bat lortzeko, eta hiru ustel partida irabazteko.

Sari ederrak irabazteko aukera Mus Txapelketan

Lehendabiziko txapelketa honetan indartsu hasi dira Ibarra, eta sari potoloak jarri dituzte irabazleentzat. Hala, bikote garaileak 500 euro etxeratuko ditu, eta txapela. Bigarren geratzen direnentzat 250 euro izango dira; hirugarrenentzat, 150, eta azkenik, lauga-

renentzat, 60 euro. Gainera, honez gain, mus jokalariek guztien artean zozketak egingo dituzte, eta zenbait sari banatu. Hauek Azokan bertan erabiltzeko txartelak izango dira.

Antolatzaileek gogorarazten dute bestalde, erretzea baimenduta egongo dela txapelketak irauten duen bitartean, baita gero ere. Honez gain, arratsalde horretan, barrerretan, goizaldeko hiruak arte egongo da irekita karpa.

Mus txapelketaren ostean, aurreko egunetan bezala, 18:00etan irekiko ditu ateak Garagardo Festak. Edariarekin eta janariarekin batera, musika ere izango da karpn, festa giroa nabari dadin. Egun horretan, goizaldeko hiruak arte egongo da irekita karpa.

Aurtengoa lehena izango da, baina aurrera begira, gehiagotan egiteko asmoa ere badutela diote antolatzaileek.

Hilberriak

JOXEAN ORMAZABAL BERASATEGI

Leku goxo ta onak badituk
Euskal Herri zabalean,
hire atsedean leku onena
Aitzkorriren magalean.

Anaren lagunak



JOXEAN ORMAZABAL BERASATEGI

Hire erakutsi, jakinduri eta egoten jakiteagatik
Hire apaltasun eta izate xumeagatik
Hire alaitasun eta leialtasunagatik
Hire aholkuekin bidea egiten laguntzeagatik
Gure lagun izateagatik

Eskerrik asko Joxean

Segurako Liburu Azokaren antolatzaileak
eta Elorri Kultur Elkarte



SEGURA
2010eko
maiatzaren 5a



MERTXE AMUNDARAIN ALEGRIA

ANDREA
(ALFONSO ZABALA URREAREN ALARGUNA)

Milaesker amona!
Zure indarra eta kemena bidelagun izango
ditugu betirako.



IBARRAN
2010eko
maiatzaren 5a

Bilobak: Maider eta Iban, Igor, Eneritz, Miren
eta David, Alex eta Aida, Laida eta Oihan.
Birloba: Amets.



9°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Dantza

■ **Tolosa.** *Magic of the dance* dantza ikuskizuna Leidor aretoan 20:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Gizonduz ekimeneko Rixar Bacetek *Gizonen partaidetza etxeko eta zainketa lanetan* hitzaldia emango du Kultur Etxean 20:00etan, Berdintasunaren aldeko I. Astearen baitan.

■ **Anoeta.** Herriko festak antolatzeko bilera 19:00etan udaletxean. Jai batzordeak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak Mikel!

Gaur 5 urte. Muxu potoloak etxekoan partetik.



TOLOSA ● «Aste Santuan Extremadura aldean ibili gara eta toki ezberdinen artean Jerte bailara bisitatu dugu, argazkian ageri diren gereiziondo loretuak gertutik bisitatu. Oso leku polita eta ikusgarria urte sasoi honetan», dio Anek. ANECEIZABARRENA




TOLOSA

«Aurten familiarekin izan gara Araian. Herri oso polita eta lasaia», argitu du Mertxek. MERTXESARALEGI



IBARRA

«Belfasteko igandeko santuko martxa, ikusgarria!», argitu du IGONERUIZ



TOLOSA

«Aste Santuan Jerte bailaran izan gara. Argazkia La Garganta De Los Infernos delakoan aterata dago. Adorea izanez gero bainu bat hartzeko leku ikusgarria», dio. PATXISANCHEZ



Datozen maiatzaren 6, 7, 8 eta 9an Ibarra ospatuko den VII. Garagardo Festaren baitan, gau bakoitzerako bi pertsonentzako **afaria** zozketatuko dugu gure harpidedun ordaintzaileen artean.

saria eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira goizeko 9:30etatik 13:00etara



txokoa hitza